

Ereñotzun 24 etxebizitza egingo dituzte

■ 12 Babes Ofizialekoak izango dira eta beste 12ak partikularrak ■ Osteguneko plenoak Gisasola lur jabearekin egindako konbenioa onartu zuen.



Aurreko txoko honetan egingo dituzte etxe berriak. 1966a ezkeror Ereñotzun ez da etxerik egin.

UDALAK Ereñotzun etxe berriak egiteko tramitazioa hasia erabaki du. Kontua aspalditik dator, eta *inñatuarrek* oraindik apenas sinesten duten beren auzoan etxeak egingo direnik.

Babes ofizialeko 12 etxebizitzak auzokoentzat izango dira, oraindik aukeraketa nola egingo den erabaki ez bada ere. Beste erdiak, berriz, bi etxebizitzakoak izango dira eta horietan auzokoek ez dute lehentasunik izango.

GOIKOETXEA GAINEAN
Etxeak Goikoetxea gaineko pare horretan egingo dituzte, justu granja gainkaldean. Babes ofizialekoak 95m ingurukoak dira, garaje eta guztikoak. Balio, berriz, 15-16 milioi balioko dute, eta garajeek beste milioi eta erdi inguru.

SARRERA, KORAPILOA
Ereñotzun denbora askoan ezin

izan da etxerik egin udaletxeko Arau Orokorra uzten ez zuelako. 87an hasten da arazoa desblokeatzen, baina, trabak eta gorabeherak etengabeak dira. 1996an Diputazioak Arau Subsidiario berriak onartzen ditu eta Ereñotzun etxeak egitekoan Alkatxuingo sarreran rotunda egitea eskatzen du, bestela baldintzak betetzen ez dituelako. Rotonda egiteko ordea, tabernako etxea bota eta beste bat egin beharra zegoen, baina, horrela etxebizitzak ez ziren babes ofialeko prezioetan sartzen, Hirigintzaren arabera.

ROTONDARIK GABE
Azkenean, "udalak lortu du proiektu berri bat egin eta arazoa desblokeatzea: Alkatxuingo sarreran rotunda egin beharrik gabe ondo jarri eta Ereñotzun etxeak egiteko tramitazioa hasia" esan dio Manuel Fraile Hirigintza buruak Kro-

nikari. "Gisasola lur jabearekin konbenioa egin dugu eta orain Diputazioak proiektua onartzea falta da, baina, hori tramitazio hutsa da". Bestalde, udalak 8 milioi jarriko ditu urbanizazioaren zati bat ordaintzeko.

EA-EAJ KEZKATUTA
EA-EAJ taldeak ezezkoa eman zion plenoan lur jabearekin konbenio sinatu eta tramitazioa hasteari. EA-EAJ Ereñotzun etxebizitzak egitararen alde dago, Arratibelek Kronikari esan dienez. Eta 24 ez baizik 30 etxebizitza egiteko proiektua ere badaukate: 15 Babes Ofizialekoak eta 15 bestelakoak. Plenoan ezezko botoa eman zuen; bategatik, udalak EA-EAJ-ren proiektua ez dutelako eztabaidatu ere egin nahi izan; eta bestetik, EA-EAJak ez du ikusi Diputazioak EH-ren proiektuari baiezkotzea eman dionik. Eta ez ote dion emango kezkaz omen dago. □

Institutuak 5 urte, Langai lan zerbitzuarekin elkarlanean

■ Hernani Institutuan ikasten duten denek lortzen omen dute lana.



Institutuko ikasleak lanean.

DUELA 5 urte Hernani Institutuak Eusko Jaurlaritzako *Langai* zerbitzuarekin elkarlan hitzarmena sinatu zuen. Langai Jaurlaritzaren lan zerbitzua. Hitzarmenak zekarrena da Hernani Institutuak eskualde honetako lan eskara eta eskaintzaren gestioan parte hartze zuzena edukitzea, Institutotik bidalitako ohar infomatiboak dionez.

10 IRAKASLE ZEREGIN HORRETARAKO

Hernanialdeko Lan eskaria eta eskaintza behar bezala jestionatzeko Hernani Institutuak 10 irakasle ditu, zeregin horrerako akreditazio berezia dutenak.

PLANGINTZAK EGIN

Langaiekin elkarlan hitzarmena sinatu zenean, hasieran,

Institutuak lan elkarriketetan hartzen zuen parte. Gerora, ordea, berak lan plagintzak egin eta bideratu ere egiten ditu.

IKASLEENTZAT LAN 'BOLTA' BEREZIA

Lanbide Heziketan 53 urte daramazkien Institutuak ikasleentzako lan burtsa berezia du, inguruko enprekin duen harremana medio. Eta Institutuko datuek diotenez, ikasle-en enplegu kuota %100 da.

LANGAI ETA LAN BOLTA UZTARTUTA

Enpresen lan eskaerak zuzenean betetzen ditu Institutuak. Batzuetan, ordea, lana eskatu eta ikasle denak okupatuta egoitea ere egokitzen da. Orduan, *Langai* zerbitzuaren bidez bideratzen dute lan eskaria. □

Jubilatu Etxeko taberna igandean inauguratuko dute 'jabe berriek'

Telemar
ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI
☎ 943 33 26 00

Eskaintza **119.000 pta.**

SERIE MEGA ATHLON: Asus A7V plaka, CD irakurlea x52 LG, Sounblaster 128 PCI soinu txartela, Barne Modem a 56 kb, Genius Scroll arratoia, PS/2 teklatura, 240 Wko altabozak, 15" Daewoo Monitorea, 1000 Mhz tako K7 prozesadorea.

Entitate finantzieroen 20.000 pta eta Eusko Jaurlaritzaren 25.000 pta deskontatu ondorengo azken prezioa. %16 BEZ a sartu gabe.

⇒ 'Telefonica'ko banatzailea
⇒ Movistar
⇒ Zentralitak
⇒ 'Centrex'
⇒ Faxak
⇒ Telefono altak
⇒ Telefonía mugikorra
⇒ "Via digital", inalanbrikoak,...

Xenon
Computer

OIALUME
BILTOKIA.

EUSKAL GIROA

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38



Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

► Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
► Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
► Aseguruen gestioa
► Finantziarioak
► Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

Guardia Zibilak Gestoretako Gipuzkoako koordinatzailea atxilotu zuen atzo Hernanin

■ Iratxe Sorozabal prentsurreko batera zijoala atxilotu zuten ■ Gaur 20:00etan asanblea Gudarien plazan eta gero manifestazioa konbokatu dute Gestorek.



Guardia Zibilek Lizeaga Kalea itxita eduki zuten, atzo.

GUARDIA Zibilak Iratxe Sorozabal Gestoretako kidea atxilotu zuten atzo goizean Hernanin. Iratxe Sorozabal etxetik atera eta AABBe eman behar zuten prentsurreko batetara zijoala atxilotu zuten. Eguerdiko 12:30etatik 15:00etara Lizeaga kalea moztu eta atxilotuaren pisua miatzen aritu zen Guardia Zibila, Iratxe bertan zuela.

AZKEN ALDIKO ATXILOKETAK

Iturri ofizialen arabera Biarritzen atxilotutako Arrate Urreisti eta Bera, Irun, Oreta eta Lesakako azken atxilotuekin zerikusia du Iratxek. Gestorek kezka azaldu dute torturatua izan litekeelako eta azken atxilotuen askatasuna eskatu du. □

Gorka Gomez hernaniarra irabazle Txinako lasterketa batean

■ Gorka sukaldari dago Txinan ■ Bere hitzetan “ezezaguna izanda sorpresan harrapatu ditut guztiak” ■ 7.500 korrikalari atera ziren 10 km-ko lasterketan.

PORTUKO Gorka Gomez iazko uztailan joan zen Txinara lanera; Pekinen dabil ordu ezkerro sukaldari. Oraintsu 10 km-ko lasterketa jendetsu batean parte hartu du Gorkak, Pekinen bertan, eta hara non jo eta irabazi! Txinatarrak ere aho bete hortz gelditu omen dira. Bertako egunkari eta telebistetan ere atera omen da gure hernaniarra. Gorkaren hitzetan “ezezaguna izanda probaren hasieran alde egitea lortu det” eta horrelaxe irabazi du proba. Txinatarrak ezezik Portuko kuadrilako lagunak ere harrituak daude. Zorionak! □



Gorka Gomez Hernaniko proba batean saria jasotzen.

ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga
Kiroldegian 16:30etan.
UPV Hernani
Universidad de Navarra
Euskadiko liga
Kiroldegian 18:00etan
Hernani KE- CV Rekalde
Jubenilak. Euskadio txapelketa
Kiroldegian 09:30etan.
Hernani KE-Berezi Gasteiz
Kiroldegian 12:00etan.
Hernani KE-Bizkaia
Kadeteak
Zarautzen 11:00etan
Zarautz-Hernani

■ ERRUGBIA

Kadeteak. Euskal Liga
Bidebieten 11:00etan
Atletiko SS-Hernani

■ FUTBOLA

Gorengo maila
Zubipen 16:30etan
Hernani-Aloña Mendi
Gazteen Ohorezko Liga
Zubipen 12:15etan
Hernani-Ordizia
Haurren ohorezko liga
Alustizan 11:00etan
Aitzgorri-Hernani

■ PELOTA

Paleta goma. Hernaniko Txap.
Kiroldegian 16:30etan.
- Rekalde-Arluziaga
Lujanbio-Etxegia
- Aierbe-Esteban
Ubarretxena-Galarza
GIPUZKOAKO TXAPEL. FINALAK
Kadeteak Trinketeen buruz buru.
Iradi-kBehar Zana
Trinketeen bi bitara

Gascon-Aizpurua
Behar Zana

IGANDEA

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga
Deustun 12:30etan
UPV Bizkaia-Hernani KE

■ ESKUBALOIA

Euskadiko Liga:
Bidebieten 12:15etan
Hernani-Urdaibai

■ FUTBOLA

3garren Maila
Tabiran 17:00etan
Cultural de Durango-Hernani
Gazteen Liga Nazionala
Zubipen 11:30etan
Hernani-Union Txiki
Gazteen 2. Maila
Michelinen 10:30etan

Texas-Hernani
Kadeteen Ohorezko Liga.
Zubietan 10:00etan
Real Sociedad-Hernani
Kadeteen 2.maila
Zubipen 10:00etan
Hernani-Sanpedrotarra

■ PELOTA

UDABERRI TXAPELKETA. FINALA
Jubenilak paleta goma
Atano Illan 10:00etan
Hoz-Salaberria
Burutaran-Lujanbio

KIROLDEGIAN 10:30ETAN

UDABERRI TXAPELKETA
Eskuz binaka. Kadeteak
Leone-Altuna
Mundarro
Eskuz binaka. Kadeteak
Arrieta Gurrutxaga
Añorga

■ HITZ BITAN



Larre Gaingo atarian irakasle, guraso eta haurrak.

✓ TAKOLO PIRRIIX ETA PORROTXI ELKARTASUNA

Guraso eta irakasle talde bat pailazoen alde. Haur eskolako irakasle, guraso eta ikasle talde batek elkartasuna adierazi nahi izan diote azken aldian zer esan ugari eman duten hiru pailazoei. Gurasoen hitzetan “munduko haurrek asko maite baitute alkatxofa papila”

✓ KAZETARITZA IDAZKETA IKASTAROKAK

Euskaldunon Egunkariak emango ditu apiriletik ekainera. Egunkariako Euskara sailak eta beste lau irakaslek Kazetaritza idazkerari buruzko ikastaroa emango dute, Andoainen. 40 ordu izango dira, larunbata goizetan. Prezioa: 30.000 pta. ☎ 943-300222.

✓ UDALEKUAK

Umeentzako udalekuak uztaila eta abuztuan. Foru Aldundiek udalekuak antolatu dituzte 7-8, 9-11 eta 12-13 urteko gaztetxoentzako. Zazpi edo hamalau eguneko egonaldia izan litezke. Txanda berezien artean bertso udalekuena, ingelesa ikastekoena eta kirolektoa dira aipagarrienak. Tokiak ere ugari dira: Zornotza, Orduña, Doneztebe, Gorkiz, Zarautz, Orío, Azkona, Hondarribia, Zuhatza, La Puebla... Prezioak: 7 egunetakoa 13.126 pta; 14 egunetakoa 26.250 pta; eta ingelesekoa 33.000 pta. Izena astelehenerako eman behar da Karobieta 63an. Zozketa apirilaren 9an egingo da. Informazio gehiago 943 557854 telefonoan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalarri anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes
Etxeberri
☎ 943 557738
►Gauetz: Zatarain
Andoain. Arteta, z/g
☎ 943 590802

Fono tel
norte

Honako produktu hauek aurki ditzakezu gure denda berrian :

- 1050

- Interneta

- Telefonía mugikorra

- Telefonía fijo

- Zentralitak

- Faxak

Banatzaila Ofiziala

Euskaltel



Kardaberaz kalea 68
Tel.: 943 33 60 25
Faxa: 943 33 50 79
20120 Hernani